Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak (4/1999 Legean emandako idazkera) onartutako kasuetan eta eran.

***21. artikulua. Azken klausula***

Deialdi honen oinarriak hauen menpe daude: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Aurrekontuen Araubide Ekonomikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketa), eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 2a.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.

en la forma establecida por la ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por ley 4/1999.

***Base 21ª. Cláusula Final***

Las bases de la presente convocatoria quedarán condicionadas en su totalidad a lo que establezca la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, la ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre de Régimen Económico Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en redacción dada por la ley 4/1999 de 13 de noviembre y demás normativa que sea de aplicación.

En Vitoria-Gasteiz, 2 de junio de 2009.– La Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales y Presidenta del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, Mª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.

# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### AMURRIO

**4892**

**Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren Arautegiaren behin betiko onarpena.**

Udal talde osoak, 2009ko ekainaren 4an egindako saioan, Amurrioko Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren Arautegia onartu zuen. Jarraian oso-osorik idatzita dago:

**AMURRIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU KONKTSEILUAREN ARAUTEGIA**

Zioen adierazpena

Amurrioko udalak, 2006ko maiatzaren 25ean egin zuen osoko bilkuran, herritarren parte hartzea arautzen duen arautegia (HPA) onartu zen. Horko 18.3.b) idatz zatian esleitu zitzaion, besteak beste, udal proiektu handien eta hirigintzako planeamendu orokorraren jarraipena egitea.

Horren ildotik, herritarren parte hartzeari buruzko arautegiko 21. artikuluak ezartzen du, udalak jada existitzen diren foro eta kontseilu sektorialak sustatuko dituela, eta parte hartzearen kontseiluak edo batzorde iraunkorrak proposatutakoak sortzea erraztuko duela.

Bestalde, udalbatzak, Europako Hiriak Iraunkortasunerantz Gutuna (Aalborgeko Gutuna) onartuta, eta Agenda 21 esparruaren baitan, Arnasa Foroa erakunde bihurtu zuen, ingurumenaren alorreko tokiko politika publikoetan herritarrek parte hartzeko bitarteko gisa.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, 109. artikuluan ezartzen du, hirigintza planeamendua behin betiko onartzeko adina eskumen duten udalerri guztiek, nahitaez, udal hirigintza planeamenduaren aholku kontseilua eratu behar dutela. Aipatu legeko 110. artikuluak, bestalde, aipatu kontseiluaren eraketa eta definizioa arautegi baten mende jartzen ditu. Udal honek 2006ko maiatzaren 25ean bete zuen hura. Izan ere, bere 21. artikuluan dio “foro sektorial edo kontseilu hauek autonomoki arautuko dute funtzionamendua, berezko arautegiaren bidez”.

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### AMURRIO

**4892**

**Aprobación definitiva del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.**

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 4 de junio de 2009, aprobó definitivamente el Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Amurrio que a continuación se transcribe íntegramente:

**REGLAMENTO DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE AMURRIO**

Exposición de motivos

El Ayuntamiento de Amurrio en sesión plenaria celebrada con fecha 25 de mayo de 2006 aprobó el Reglamento de Participación Ciudadana (R.P.C.) y en su apartado 18.3.b) se le asignaba entre otras funciones la del seguimiento de los grandes proyectos municipales y del planeamiento urbanístico general.

Establece al efecto el artículo 21 del Reglamento de Participación Ciudadana que el Ayuntamiento impulsará los foros y consejos sectoriales existentes y facilitará la creación de aquellos que pudieran proponerse por el Consejo de Participación o la Comisión Permanente.

De otro lado la Corporación municipal aprobando la Carta de las Ciudades Europeas hacia la sostenibilidad (Carta de Aalborg) y dentro del marco de la Agenda 21 institucionalizó el Foro Arnasa como mecanismo de participación ciudadana en las políticas públicas locales en materia ambiental.

La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo establece además en su artículo 109 la obligatoriedad de todos los municipios con competencias para la aprobación definitiva del planeamiento urbanístico la de constituir un Consejo Asesor de Planeamiento Municipal y el artículo 110 de la citada Ley remite la constitución y definición de las características básicas del citado Consejo a la aprobación de un Reglamento, del que éste Ayuntamiento se dotó el 25 de mayo de 2006, si bien su artículo 21 señala “...que estos foros sectoriales o consejos regularán su funcionamiento de forma autónoma mediante reglamento propio”.

Ingurumenaren gaineko Herritarren Foroak Iraunkortasunaren aldeko Arnasa Foroa izena hartu zuen. Betebeharren artean, planeamendu orokorraren egitura esparruko ezarpenak eta horien aldaketak ezagutzea dauka, eta behar izanez gero, haien gaineko txostena ematea ere.

Bada, egungo arautegiak dionez, udal planeamenduaren aholku kontseiluaren sorrera eta funtzionamendua arautzea proposatzen du. Kontseilua kontsulta organoa eta elkargo egiturakoa izango da, hirigintza planeamenduan herritarren parte hartzea bideratu ahal izateko. Arautegi horren bidez bestelako alderdi batzuk ezartzen dira, besteak beste, udal planeamenduaren aholku kontseiluaren oinarrizko egitura, eginkizunak eta araudi juridikoa, elkargo den aldetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 110. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2/85 Legeko 20. artikuluan ezarritakoaren babesean, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoaren babesean, honako arautegia eman da.

## 1. KAPITULUA
## UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU KONTSEILUAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK

***1. artikulua. Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren eraketa.***

1. Osoko bilkuran onartutako herritarren parte hartzea arautzeko arautegiko 18.3.b.) artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 110. artikuluarekin bat, Amurrioko Udal Planeamenduaren Aholku Kontseilua eratu da.

2. Orobat, hirigintza alorreko gaiei buruz informazioa bildu, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko gune iraunkorra izango da eta bertan gizarteko, ekonomiako, ingurumeneko eta herritarren eragileek parte hartuko dute.

3. Amurrioko Udalaren parte hartze erakunde osagarritzat hartuko da, izan ere, helburua herritarren elkarteek eta taldeek udal gobernuak hartuko dituen erabakietan parte hartzea da.

***2. Artikulua. Atxikipena.***

Udal planeamenduaren aholku kontseilua hirigintza alorrean eskumendun arean atxikita egongo da. Berak emandako txostenak eta epaiak hirigintzako politikako batzordeak edo hirigintzako informazio batzordeak aztertuko ditu eta horien berri emango zaio Amurrioko herritarren parte hartzearen kontseiluari.

***3. artikulua. Izaera juridikoa.***

Udal planeamenduko aholku kontseilua elkargo gisa eratuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen dituenak bezala.

***4. artikulua. Planeamenduko Aholku Kontseiluaren eginkizunak eta helburuak.***

1. Udal planeamenduaren aholku kontseiluak udalak udalerriaren planeamendu orokorra gauzatzeko egiten duen ikerketa, programa, jarraibide eta ildo guztien berri izango du, eta beti horien gaineko informazioa emango du plan orokorraren berrikusketa teknikoa idazten hasitakoan. Hirigintza antolamendurako beste edozein plan edo tresnaren gaineko informazioa bildu, haren berri eduki eta txostena eman ahal izango du kontseiluak. Aurrenekoz idazten diren, osorik berrikusten diren edo zati batean edo puntu batean berrikusten diren espedienteetan, egitura antolamenduari eragiten dioten planeamendu bitartekoen berri emango du beti eta nahitaez.

Edonola ere, udal planeamenduaren aholku kontseiluak ematen dituen erabakiak, proposamenak eta txostenak gomendio gisa hartuko dituzte udal gobernuko organoek, baina azken horiek arrazoizko

El Foro de Participación Ciudadana en Medio Ambiente pasó a denominarse Foro de Sostenibilidad Arnasa e incluye entre sus funciones el de conocer y emitir, en su caso, informe en relación con las determinaciones de índole estructural del planeamiento general y de sus modificaciones.

Pues bien, el presente Reglamento propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal como órganos consultivos y colegiados que permitan articular la participación social en la planificación urbanística. A través de este reglamento se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el artículo 22 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y Procedimiento Administrativo Común y a lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

En consecuencia, Al amparo de lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de Bases del Régimen Local, así como a lo dispuesto en la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo se dicta el presente Reglamento.

## CAPÍTULO 1
## NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

***Artículo 1. Creación del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.***

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 18.3.b) del Reglamento de Participación Ciudadana, aprobado en sesión plenaria y el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Amurrio.

2. Se constituye como espacio permanente de información, debate, y deliberación, de agentes sociales, económicos, ambientales y de la ciudadanía, en general, en relación con la materia urbanística.

3. Tiene la consideración de órgano local complementario de participación del Ayuntamiento de Amurrio con la finalidad de que asociaciones y colectivos de ciudadanía puedan cooperar en las decisiones de los órganos de gobierno del municipio.

***Artículo 2. Adscripción.***

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, se adscribe al área municipal competente en materia de Urbanismo y sus informes y dictámenes pasarán a ser estudiados por la Comisión Política o Comisión Informativa de Urbanismo y se dará cuenta de ellos al Consejo de Participación Ciudadana de Amurrio.

***Artículo 3. Naturaleza jurídica.***

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se configura como órgano colegiado de los regulados en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 4. Funciones y Fines del Consejo Asesor de Planeamiento.***

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal conocerá de cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación elabore o establezca el Ayuntamiento para la formulación del planeamiento general del municipio e informará, en todo caso, una vez iniciada la redacción técnica de la revisión del Plan General. El Consejo podrá recabar, conocer y emitir informe de cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística. Informará, en todo caso y con carácter preceptivo, en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento que afecten a la ordenación estructural.

En todo caso, las decisiones, propuestas e informes que emita el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, pero

erantzuna eman beharko diote atzera botatzen duten edo aldatzen duten gomendio orori.

2. Plan orokorraren, sektorializazio planaren edo bateratze planaren lehenengo testuaren, berriskuspen osoaren edo zati bateko berrikuspenaren harira egindako espedienteetan, aurrerapen agiriaren edukiaren gaineko eta aipatu planeamenduen hasierako eta behin-behineko onarpen agirien gaineko txostena nahitaez eman beharko da.

3. Plan orokorraren, sektorializazio planaren edo bateratze planaren egitura antolaketaren puntu baten aldaketaren gaineko espedienteetan, nahitaez eman beharko da hasieran onartu zen agiriaren edukiaren gaineko txostena. Aurrerapen agiririk badago, haren edukiaren gaineko txostenak aipatu planeamenduen hasierako onarpenerako egindako agiriaren gaineko txostena ordezka dezake.

4. Udal planeamenduaren aholku kontseiluak, haren esku hartzea derrigorrezkoa den espedienteetan, espedientea jaso eta hilabeteko epea izango du txostena emateko.

5. Hirigintza espedientea behin betiko onartzeko ekitaldian, udalak azalpenak eman beharko ditu aholku kontseiluak emandako konponbideen bestelakoak hartu izanaren gainean.

6. Edonola ere, txostena ezarritako gehienezko epetik kanpo ematen bada, onarpenaren arduradun diren udal organoak espedientearen izapidetzearekin jarraitu ahal izango dute eta behin betiko onarpen ekitaldian garaiz kanpo emandako txostenen edukia arbuiatu ahal izango dute.

7. Udalak ofizioz jakinaraziko die aholku kontseiluko kide ez politikariei artikulu honetako 1. idatz zatiko espedienteen hasiera.

## 2. KAPITULUA
## UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU KONTSEILUAREN OSAERA

***5. artikulua. Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren osaera.***

Honela osatuko da udal planeamenduaren aholku kontseilua:

1. Batzarburua: udal planeamenduko aholku kontseiluko batzarburua alkatea izango da.

2. Kideak:

a) Hirigintzari buruzko informazio batzordeko burua. Kargu hau alkateari egokitzen zaionetan izan ezik.

b) Herritarren elkarte eta batzordeen ordezkari izango den pertsona bat. Ukitutako auzoaren arabera hautatuko den herritarren parte hartze kontseiluak izendatuko du, edo bestela txanda, zozketa edo hartarako ezarritako beste bitarteko batez hautatuko da.

c) Amurrion dauden industrien ordezkaria. Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak izendatuko du.

d) Ingurumeneko balioen defentsaren ordezkari bat. Ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiaako balioen irakunkortasun foroak izendatuko du, eta foro hori Iraunkortasunerako Arnasa Foroak izendatuko du.

e) APIMCA merkatarien elkarteak izendatutako ordezkari bat.

f) Amurrioko nekazaritza, abeltzaintza- eta baso sektorearen (lehen sektorea) ordezkari bat. Udalerrian dauden sektoreko elkarteek aukeratutakoa.

3. Idazkaritza: Udal teknikari bat. Hirigintza alorrean eskumen duen sailean atxikita egon behar da.

Idazkariak batzarburuaren jarraibideak bete beharko ditu aholku kontseiluari laguntzeko eta gomendioak emateko. Idazkaria organoen saioetara joango da, hitzak izango du, baina botorik ez.

estos tendrán que dar una respuesta fundada a todas las recomendaciones desechadas o modificadas.

2. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento de Avance y respecto a los documentos de aprobación inicial y provisional de los citados planeamientos.

3. En los expedientes referentes a la modificación puntual de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento aprobado inicialmente. En el caso de existir documento de Avance, el informe sobre el contenido del mismo podrá sustituir el informe sobre el documento para la aprobación inicial de los citados planeamientos.

4. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, en los expedientes en que su intervención sea preceptiva, deberá emitir su informe en el plazo máximo de un mes desde que le fueran remitidos.

5. En el acto de aprobación definitiva del expediente urbanístico deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

6. En todo caso, la no emisión del citado informe en los plazos máximos establecidos habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación a proseguir con la tramitación del expediente pudiendo no ser tenido en cuenta en el acto de aprobación definitiva el contenido de los informes que se hubieran emitido extemporáneamente.

7. El Ayuntamiento informará de oficio a las y los miembros que no sean personal político del Consejo Asesor del inicio de cualquier expediente de los relacionados en el apartado 1 del presente artículo.

## CAPÍTULO 2
## COMPOSICION DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

***Artículo 5. Composición del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.***

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal estará compuesto de la siguiente forma:

1. Presidencia: El Alcalde o Alcaldesa será la persona que detente la Presidencia del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

2. Vocales:

a) El o la Presidenta de la comisión informativa de urbanismo. Excepto cuando esta recaiga sobre el Alcalde o la Alcaldesa.

b) Una persona en representación de las asociaciones y asambleas vecinales, que sea designada por el Consejo de Participación Ciudadana que se elegirá en función del Barrio afectado, o por turno, sorteo o cualquier otro medio establecido al efecto.

c) Un o una representante de las Industrias radicantes en Amurrio que sea designada por la Cámara de Comercio e Industria de Álava.

d) Una persona en representación en defensa de valores ambientales designada por el Foro de Sostenibilidad de los valores ambientales, sociales y económicos, designado por el Foro de Sostenibilidad Arnasa.

e) Un o una representante designada por la Asociación de Comerciantes APIMCA.

f) Una persona en representación del Sector Agrícola-Ganadero-Forestal (Sector Primario) de Amurrio, que sea designada por las Asociaciones del Sector radicantes en el Municipio.

3. Secretaría: Un o una Técnica municipal, adscrito al Departamento competente en materia de urbanismo.

A la Secretaría le corresponderá, bajo la dirección de la Presidencia, la asistencia y asesoramiento al Consejo Asesor. El o la Secretaria acudirá a las sesiones de los órganos del Consejo con voz pero sin voto.

***6. artikulua. Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren kideen ordezkaritza.***

1. Kideak haiek ordezkatzen dituzten erakundeek aukeratuko dituzte. Kargu bakoitzeko titularra eta bi ordezko izendatuko dira.

2. Batzordeburuak hala eskatzen badu, edo edozein kidek eskatzen badu, kontseiluaren bileretan parte hartu ahal izango dute honakoek, bertako kide ez badira ere. Hala ere, hitza izan arren, ez dute botorik edukiko:

a) Hirigintza planak idatzi behar dituzten langile teknikoak.

b) Hirigintza eta ingurumen arloetako udal teknikariak.

c) Bestelako taldeak; talde ekologistak, emakumeen elkarteak, ezindu fisikoen elkarteak, ezindu psikikoenak etab.

***7. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Kontseiluaren kideen izendapena eta karguaren etetea.***

1. Aholku kontseiluko kideak alkateak izendatuko ditu, eta izendapen proposamena ondorengo idatz zatietan adierazitakoari jarraiki egingo da:

a) Alderdi politikoen ordezkariak alderdiek berek aukeratuko dituzte.

b) Gainontzeko ordezkariak ordezkatzen duten organoak aukeratuko ditu. Foroan edo kontseiluan parte hartu nahi duten erakundeen kopurua ordezkaritza maximotik gora badago, tartean diren erakundeak ados jartzen ez badira, batzordeburuak parte hartzeko modua ezarriko du, zozketa bidez, errotazio bidez edo uztartutako parte hartze bidez.

2. Kideak izendatu aurretik beren onarpena beharko da.

3. Politikari izateagatik kide izatea egokitu zaien pertsonen kargua beti etengo da udalbatzaren agintaldia iraungitzean.

4. Gainontzeko kideen karguak bost urteko iraupena izango du. Hala ere, kargua eten dakieke honako kasuetan:

a) Beren beregi karguari uko egitea.

b) Kargu publikoa betetzeko ezintasuna edo ezgaikuntza epai irmo bidez aitortzen bada.

c) Beren kargua dela eta kide diren pertsonen kidetza izaera hori galtzerakoan bukatuko da.

d) Erakunde proposamengileak kargutik mugiaraztea.

5. Plaza hutsak izendapenerako sistema bera jarraituz beteko dira.

***8. artikulua. Kalte ordainak***

Udal planeamenduaren aholku kontseiluaren kideek ez dute beren funtzioak betetzeagatik ordainsaria jasotzeko eskubiderik edukiko.

III. KAPITULUA
UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU KONTSEILUAREN ARAUTEGIA

***9. artikulua. Ohiko bilkurak eta bereziak.***

1. Udal planeamenduaren aholku kontseiluak ohiko bilkurak egingo ditu, arautegi honen arabera organo horien bitartez nahitaez jakinarazi behar diren planeamenduko espedienteen harira. Ohiko bilkura aipatu txostena emandakoan bukatuko da.

2. Hala ere, ohiko bilkuretatik at, udal planeamenduaren aholku kontseiluak bilkura bereziak egin ahal izango ditu premiazko arrazoiak direnean edo komenigarria denean. Batzordeburuak egingo du deialdia, haren ekimen propioari jarraituta edo, gutxienez, kontseiluko kideen herenak hala eskatuta.

3. Bideragarri izanez gero eta orokorrean esanda, bilkurak astelehenetik ostiralera egingo dira, 18:00etatik aurrera, gizarte eragileak bertaratzea errazagoa izan dadin.

***Artículo 6. Representación de las Vocalías del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.***

1. Las vocalías serán designadas por las entidades que representan. Se designará por cada puesto un o una titular y dos suplentes.

2. A propuesta de la Presidencia, o de cualquiera de las y los vocales miembros, podrán también participar en las reuniones del Consejo aun no siendo miembros del mismo, con voz pero sin voto:

a) El personal técnico encargado de la redacción de los planes urbanísticos.

b) Los y las técnicas municipales de las áreas de urbanismo y medio ambiente.

c) Otros colectivos como grupos ecologistas, asociaciones de mujeres, asociaciones de disminuidos físicos, psíquicos etc.

***Artículo 7. Nombramiento y Cese de los y las Vocales del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.***

1. Las personas vocales del Consejo Asesor serán nombradas por el Alcalde o Alcaldesa efectuándose la propuesta de designación según lo establecido en los apartados siguientes:

a) Los personas representantes de los partidos políticos, a propuesta de éstos.

b) Los y las restantes representantes por sus respectivos órganos representativos. En el supuesto de que las entidades que quieran participar en el Foro o en el Consejo supere el número máximo de representatividad, a falta de acuerdo entre las asociaciones implicadas, la Presidencia establecerá su forma de participación ya sea mediante sorteo, rotación, presencia conjunta

2. El nombramiento de personas vocales requerirá la aceptación previa por parte de éstas.

3. Los y las vocales que lo sean por ostentar la condición de personal político cesarán, en todo caso, cuando expire el mandato de la Corporación Municipal.

4. La duración del cargo del resto de los y las vocales será de cinco años, no obstante podrán ser cesadas, también, por las siguientes causas:

a) Por renuncia expresa.

b) Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.

c) En caso de las personas miembros que lo sean por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.

d) Remoción por la organización proponente.

5. Las vacantes se proveerán en la misma forma establecida para su nombramiento.

***Artículo 8. Indemnizaciones.***

Las personas miembros del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

CAPÍTULO III
REGIMEN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

***Artículo 9. Sesiones Ordinarias y Extraordinarias.***

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se reunirá en sesiones de carácter ordinario respecto a los expedientes de planeamiento que deban ser informados con carácter preceptivo por estos órganos según lo establecido en este Reglamento. Dicha sesión ordinaria concluirá con la emisión del informe citado.

2. No obstante, fuera de las ordinarias, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal podrá celebrar sesiones extraordinarias por razones de urgencia o de conveniencia, que serán convocadas por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte del número de personas miembros del Consejo.

3. Las sesiones, siempre que sea posible y con carácter general, se celebraran de lunes a viernes en un horario a partir de las 18,00 horas, para facilitar la asistencia de los agentes sociales implicados.

***10. artikulua- Bertaratze quoruma.***

Bilkura egin ahal izateko batzordeburua eta kideen erdia bertaratu beharko da gutxienez, eta quorum hori saio guztian mantendu beharko da. Quoruma ez bada lortzen saioa egin daiteke, baina quorum falta beren beregi adierazi beharko da saio horretako txosten eta aktan.

***11. artikulua. Bilkuretarako deia***

1. Saioak edo bilkurak deitzeko horiek egin baino hamar lanegun lehenago egin beharko da deialdia. Deialdiarekin batera bilkuraren gai zerrenda emango da beti. Deialdia udal web orrian adieraziz egin beharko da ere, eta gutxienez hamar lanegun lehenago adierazi beharko da.

2. Landuko diren gaiak deialdia egin baino hiru egun lehenago egon beharko dira idazkaritzan.

3. Udal planeamenduaren aholku kontseiluko batzordeburua, bere kabuz edo bertako edozein kidek eskatuta, premiaz eta hasi baino lehen, gai zerrendan ageri ez den beste edozein gai sartzea eskatu ahal izango du.

***12. artikulua. Deliberamenduak.***

Udal planeamenduaren aholku kontseiluko batzordeburuak eztabaidak ordenatuko ditu eta saioak orden egokian gara daitezen beharrezko neurriak hartuko ditu.

***13. artikulua. Lan batzordeak.***

1. Hiri planeamenduarekin lotutako gai zehatzak bereziki tratatzeko lan batzordeak eratu ahal izango dira, baita udal planeamenduaren aholku batzordearen gehiengoak egoki deritzonean.

2. Udal planeamenduaren aholku kontseiluak emango ditu haren osaera, izendapena eta funtzionamendua.

3. Batzordeburuak berak hala erabakita, edo kontseiluko kideen heren batek hala eskatuta, unean beharrezko eta egoki irizten den udaleko laguntza teknikoa edo kanpokoa eskatuko da.

4. Lan batzordeek landutako gaien berri emango diote Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluari.

***14. artikulua.- Hitzarmenak egitea.***

1. Udal planeamenduaren aholku kontseiluaren hitzarmenak bertaratutakoen gehiengo arrunt bidez egingo dira. Berdinketarik gertatuz gero, kalitatezko botoa erabiliko du batzordeburuak. Edonola ere, bozka partikularrak hartu ahal izango dira, eta ados ez zeuden aldeek egindako aipamenak laburki jaso ahal izango dira.

2. Udal planeamenduaren aholku kontseiluaren hitzarmenak idazkaritzak egingo duten akta batean jasoko dira eta aztergai den hirigintza espedientearen zati izango dira. Hitzarmen hauekin batera udalarekin lotesleak ez diren hirigintza antolamendurako proposamenak edo alternatibak aurkeztu ahal izango dira.

***15. artikulua. Tokia eta aktak.***

Udal planeamenduaren aholku kontseiluaren saioak udaleko bulegoetan egingo dira eta horietako bakoitzaren akta egingo du idazkaritzak. Hurrengo saioan aurrekoa onartu edo ez erabakiko da.

***16. atala.- Baliabideen atxikipena.***

Hirigintza arloan eskumendun udal areak, bertan udal planeamendurako aholku kontseilua atxikita dago, funtzionamendua egokia izateko beharrezko bitartekoak eskura jarriko ditu.

IV. KAPITULUA
UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU
KONTSEILUA DESEGITEA

***17. artikulua. Kontseilua desegitea.***

Udal planeamenduaren aholku kontseilua osoko bilkurako akordio bidez desegingo da, indarrean dagoen legediari jarraiki.

***Artículo 10. Quórum de asistencia.***

Para la celebración de las sesiones será necesaria la presencia de la Presidencia y de, al menos, de la mitad de miembros, quórum que habrá de mantenerse durante toda la sesión. Si dicho quórum no se alcanzase la sesión podrá celebrarse igualmente pero esta circunstancia de falta de quórum deberá constar expresamente en los informes y actas correspondientes a dicha sesión.

***Artículo 11. Convocatoria de Sesiones.***

1. La convocatoria de las reuniones o sesiones deberá realizarse con diez días hábiles de antelación a su celebración. A la convocatoria se acompañará en todo caso el orden del día de la sesión. La convocatoria deberá también realizarse por publicación en la Web municipal con una antelación mínima de diez días hábiles.

2. Las peticiones de asuntos a tratar deberán estar en posesión de secretaría con tres días de antelación a la elaboración de la convocatoria.

3. La presidencia del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, por iniciativa propia o a petición de cualquiera de las personas miembros de los mismos, podrá proponer la inclusión, con carácter de urgencia y previo a su inicio, de cualquier otro asunto no comprendido en el orden del día.

***Artículo 12. Deliberaciones.***

La Presidencia del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

***Artículo 13. Comisiones de trabajo.***

1. Se podrán constituir Comisiones de trabajo para el tratamiento específico de temas puntuales relacionados con el planeamiento urbano o cuando se considere necesario por la mayoría del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

2. Su composición, denominación y funcionamiento serán determinados por el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

3. La presidencia, o a petición de un tercio de las personas miembros del Consejo, solicitará la asistencia técnica municipal o de carácter externo que considere necesario y oportuno.

4. Las Comisiones de trabajo informarán al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de los asuntos tratados.

***Artículo 14. Adopción de acuerdos.***

1. Los acuerdos del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se adoptarán por mayoría simple de las personas asistentes. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia sucinta de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.

2. Los acuerdos del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal serán integrados en un acta que se elaborará desde la Secretaría y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis. Estos acuerdos podrán ser acompañados con propuestas o alternativas concretas de ordenación urbanística de carácter no vinculante para el Ayuntamiento.

***Artículo 15. Lugar y Actas.***

Las sesiones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se celebrarán en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta por la Secretaría, que será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

***Artículo 16. Adscripción de medios.***

El área municipal competente en materia de urbanismo, al que queda adscrito el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, facilitará los medios necesarios para su correcto funcionamiento.

CAPÍTULO IV
DISOLUCION DEL CONSEJO ASESOR
DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

***Artículo 17. Disolución.***

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se disolverá por acuerdo plenario, conforme al ordenamiento jurídico vigente.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Arautegi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hogei lanegunetan, hala nahi duten elkarte eta pertsonek eta seigarren eta zazpigarren artikuluetan adierazitako parte hartze titulua dutenek udal planeamenduaren aholku kontseiluan sartzea eska dezakete. Alkateak eskaera horiek erantzungo ditu eta udal planeamenduaren aholku kontseilua eratzeko saiorako onartu diren pertsonei deialdia luzatuko die.

Horregatik, aurretik aipatutako seigarren eta zazpigarren artikuluetan adierazi den erroldako elkarteak eta pertsonak, baita bertan adierazitako industriak eta saltokiak, Amurrioko udalerrian kokatuta, helbideratuta edota erroldatuta egon beharko dira.

2. Udal planeamendurako aholku kontseilua formalki eratuko da hartarako deituko den eraketa saioaren bidez.

3. Udal planeamendurako aholku kontseilua eratutakoan, eta politikariak ez diren kideen gehiengoa gainditu ez bada, arautegi honetan adierazitakoa betetzen duten elkarteak sartu ahal izango dira bertan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan jasota ez dagoenari dagokionez, udal planeamendurako aholku kontseiluaren funtzionamendua eta jarduna 2006ko maiatzaren 25eko osoko bilkuran onartutako Herritarrek Parte Hartzeko Arautegiari eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 2. tituluko 2 kapituluari jarraiki beteko da. Gainontzeko xedapenei dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeetako Araubide Juridikoak dioena jarraituko da (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua). Edukiari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoa jarraituko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Beren beregi alkateari emango zaio ahalmena beharrezko xedapen eta aginduak eman ditzan arautegi honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau ALHAOn argitaratu eta hamabost egun igaro ondoren indarrean sartuko da.

Erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, erabakia argitaratu eta bi hilabeteko epean. Halaxe ezartzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52. artikuluak eta Herri Administrazioen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107.3 artikuluak. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez ditzakete.

Amurrio, 2009ko ekaiaren 29a.– Alkatea, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

1. Dentro de los veinte días hábiles al de la publicación del este Reglamento en el BOTHA, las asociaciones y personas que así lo deseen, y se correspondan con algún título de participación enumerado en los artículos sexto y séptimo, podrán solicitar su inclusión en el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal. La Alcaldía responderá dichas solicitudes y convocará a las personas admitidas a la sesión de constitución del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

Ello no obstante, las asociaciones y personas integrantes del censo enumerado en los precitados artículos sexto y séptimo, incluidas las industrias y comercios allí señaladas, deberán estar radicadas, domiciliadas y/o empadronadas en el municipio de Amurrio.

2. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal quedará constituido formalmente mediante la sesión de constitución que se convocará a tal efecto.

3. Una vez constituido el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, podrá incorporarse al mismo, siempre que no se haya alcanzado en número máximo de vocales que no sean personal político, las asociaciones que cumplan con lo dispuesto en este Reglamento.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

En lo no previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por lo dispuesto en el Reglamento de Participación Ciudadana aprobado en sesión plenaria de fecha 25 de mayo de 2006 y en el Capítulo 2 del Título 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. En el resto de disposiciones, se estará supletoriamente a lo establecido la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre). En cuanto a su contenido en lo previsto en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

Se faculta expresamente a la Alcaldía para dictar cuantas disposiciones e instrucciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en el presente Reglamento.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor a los 15 días hábiles a partir del día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Contra el presente acuerdo, en aplicación de lo dispuesto en los arts. 52 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y 107.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso administrativo ante la Sala de los Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar a partir del día siguiente a su publicación, sin perjuicio de interponer cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Amurrio, 29 de junio de 2009.– El Alcalde, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

## ARAMAIO

**5086**

**6/2009 zenbakidun Kreditu Gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena.**

Udalbatzak, 2009ko ekainaren 24ko ohiko bilkuran, 6/2009 zenbakidun Kreditu Gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

## ARAMAIO

**5086**

**Aprobación inicial de Expediente de Crédito Adicional nº 06/2009.**

El Pleno de la Corporación, en sesión ordinaria celebrada el día 24 de junio de 2009 adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobar inicialmente el Expediente de Crédito Adicional nº 06/2009.